

Entzun ondo atzo \*\*\*k zer kontatu zidan. Berarekin lan egiten duen lankide baten lehengusinarenean alabari gertatu zaio.

Arte Ederretan graduatua izateaz gain, biolontxelo ikasketak ere eginak ditu kontserbatorioan. Eta biolontxelo ikasketetan sakondu nahian, New Yorkera joatea erabaki zuen. Ez dakit ba ote zuen bekaren bat edo bere poltsikotik ordaintzen zuen. Bera eta beste lagun bat abiatu ziren hemendik hara.

Bueno ba, hango aireportura iritsi zirenean, kontrol oso zorrotza pasarazi zieten. Bakoitza bere aldetik galdekatu zituzten. Eta non ostatatu behar zuten galdetu zietenean, batak hotel baten izena eman zuen eta besteak beste batena, izenaz tronpatu baitzen. Horrek aduanako polizien mesfidantza piztu baino ez zuen egin. Eta orduan, haien telefonoak "konfiskatu" eta bertan grabatuta zeuzkaten whatsappak irakurtzen hasi ziren.

Whatsapp haietako batean norbaitek esaten zion bati: "Bilatuko dizugu lantxoren bat hemen, New Yorken". Eta besteak : "Lasai, ez noa plan horretan" edo horrelako zerbait.

Aizu: ziega batean sartu zituzten eta presoan arropa laranja jantzarazi zizkieten (barne-arropak barne). Eta 24 orduz eduki zituzten han, negarrez.

Eta haietako bat bere amarekin telefonoz hitz egitea lortu zuenean, euskaraz hitz egin hasi zelako... errieta eta agirika egin zieten, baina oso gogor gainera. Eta bitartean, neskak ikaratuta eta negarrez.

Tira ba, hurrengo egunean Espainiara bueltan ekarriko zituen hegazkineraino eramanean zituzten... eskuburdinez eta bilurrez lotuta! Hegazkineraino!

Ah, eta ia ahaztu zait. Pasaportean zigilu bat jarri zieten, honela zioena: "Persona non grata. Debekatua betiko Estatu Batuetan sartzea".

Bai, mesedez: "Make America great again!" Baina azkar, beranduegi baino lehen (jada ez bada beranduegi...).